

# XABI SAN SEBASTIAN

## KURRIKULUM:

Xabier San Sebastian donostiarrak txikitatik izan du musika inguruan; Donostian hasi zuen bere hezkuntza musikala, berehala Madrilera joango zelarik hango Taller de Músicos-en jazz eta musika moderno ikasketak hiru urtez burutzeko. Etxean berriz ere, Izotz taldean Euskal Herriko hamaika plazetan ibili zen kantari. Geroago Alboka euskal folk taldearekin (Joxan Goikoetxea, Alan Griffin) mundu zabaleko antzoki eta auditorioak ezagutu zituen (Eskozia, Grezia, Italia, EEBB, Ejipto...). Kepa junkera, Martha Sebestyen (Hungariako Ahots tradizionala) eta Alasdair Fraser-ekin ere (bibolinjole eskoziarra) egin du lan.

ETB1entzat abestu du Hitzetik Hortzera eta Euskal Kanturik Onena saioetan. Duela hiru urte abiatu zuen bere bakarkako bidea Orai diskarekin.

## ORAI:

Orai, orainetik egindako iraganeko musiken irakurketa da.

Partitura biluzietatik euskal kanta tradizionalak hartu eta gaur eguneko arropaz jo eta abestu. Baita ere usain zaharra duten kanta berriak. Eta pop apur bat, jazz, blues printzak...eta Maurizia...

## KONTZERTURAKO FORMAZIOA:

**Xabi San Sebastian:** Ahotsa, gitarra akustikoa, panderoa.

**Rubén Caballero:** Gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa.

## PROGRAMA (GUTXI GORA BEHERAKOA):

- > EGUNON (J.C. Perez)
- > XAMURRAK (X.San Sebastian)
- > MARITXU (tradizionala Gipuzkoa/X.San Sebastian)
- > BOTTO NINAK (tradizionala Erronkari)
- > DONOSTIAN (X.San Sebastian)
- > BARDAKO ARRATSALDEAN (tradizionala Santa Grazi)
- > MUTIL GAZTEAK (tradizionala Baztan)
- > BASURDEZ BLAI (Xanta)
- > LEHEN ORAI ETA BETI (tradizionala Ainhoa)
- > AGUR MAITEÑO (tradizionala Uitz)
- > NEURE MAITEAK (tradizionala Hendaia)
- > ZER (X.San Sebastian)
- > XALBADORREN HERIOTZEAN (Xabier Lete)
- > ILUNEAN (X.San Sebastian)
- > ESAN BAI (J.C.Perez)
- > ABADIÑON (tradizionala Arratia)